

109. FITXA Katu-kolonien populazioaren kontrola hobetzeko eta bultzatzeko tokiko erakundeentzako dirulaguntzak, 2025. urterako

Nori zuzendua: toki-erakundeak onartutako katu-koloniak etikoki kudeatzeko programa duten udalak; probintzia- eta foru-aldundiak, uharteetako kabildo eta kontseiluak, eskualdeak, mankomunitateak edo hainbat udalerri biltzen dituzten bestelako erakundeak, betiere jarduketa edo proiektua planteatzen den udalerriek toki-erakunde horrek ezarri edo onartutako kudeaketa etikoko programa bat badute.

Sarbide-esteka:

https://sede.mscbs.gob.es/registroElectronico/formularios.htm#TRAM_COLONIASFELINAS

Erreferentziazko araudia: [Giza Eskubideetako Estatuko Idazkaritzaren 2025eko martxoaren 19ko Ebazpenaren laburpena, katu-kolonien populazioaren kontrola hobetzeko eta bultzatzeko tokiko erakundeentzako dirulaguntzen deialdia egiten duena, 2025. urterako.](#)

Eremuak: Katu-kolonien kudeaketa etikoa

Zenbatekoa: 1.950.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/05/29

Laburpena

Katuak harrapatzeko, esterilizatzeko eta itzultzeko metodo (aurrerantzean, CER) etikoaren bidez katu-kolonien populazioaren kontrola sustatzeko proiektuak gauzatzean erakunde onuradunek aurre egin beharreko gastuak ordaintzea da helburua. Laguntzen bidez, kolonietako gaixotasunak hedatzeko arriskuak murriztu nahi dira, koloniak osatzen dituzten animalien bizi- eta elikadura-baldintzak hobetu, eta arlo horri buruzko prestakuntza edo kontzientziazioa eman.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- CER metodoa ezartzera bideratutako proiektuak, katu-koloniak hedatzea eta ugaltzea gutxituko duten esterilizazio-kirurgiak egiteko,.
- Katu-kolonietako animalien albaitaritza-tratamendurako proiektuak.
- Katu-kolonietako animalien bizi- eta elikadura-baldintzak hobetzeko proiektuak.
- Udal-langileak prestatzeko edo herritarrek kontzientziazitzeko proiektuak, katu-koloniak errespetatzeko.

Gastuetarako aldi hautagarria

2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra.

Laguntzen zenbatekoa

Emango den finantzaketaren zenbatekoa finantzagarritzat jo den proiektuaren aurrekontuaren % 60 izango da gutxienez, eta % 100 gehienez, lehentasun-hurrenkera honen arabera:

- a) CER metodoa ezartzera bideratutako proiektuak: % 100.
- b) Katu-kolonietako kideen albaitaritza-tratamenduko proiektuak % 80.
- c) Udalerrian dauden katu-koloniak egokitzeko proiektuak: % 60.
- d) Herritarrak katu-kolonien inguruan sentsibilizatzeko proiektuak: % 60.